

KMKk askotariko ekitaldiekin ospatuko du 20. urteurrena

Musika, dantza, antzerkia, poesia eta performance bat izango dira egunotan Donostiako gunean.

Isiltasuna da liburutegien baliorik preziatuenetako bat, baina gaur, goizean eta iluntzean, musikak isiltasuna urratuko du Euskal Herriko liburutegi garrantzitsuene-tako batean, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturuneak 20. urteurreneneko ospakizunak musika emanaldiekin hastea erabaki baitu; arratsaldean, berriz, Dantzaz konpainiak Ni espioi koreografia eskainiko du, kulturunearen atarian (edo erakusketa aretoan, euria ari badu). Ondorengo egunetan ere hainbat dantza, antzerki, poesia eta musika emanaldi izango dira, eta Itziar Okarizen performance bat azaroaren 13an. Horrez gain, 20 urteotan KMKn egin diren erakusketa guztien katalogoak eta bideoak ikus daitezke egunotan erakusketa aretoan.

Ekitaldietara joateaz gain, erabiltzaileek zuzenean ere parte har dezakete urteurre-neko ekitaldietan, nork bere liburu kuttunaren azalaren argazki bat bidaliz, edo argazkia liburutegian eginez, horretarako prestatutako txokoan. KMKk webgune bat sortuko du (www.liburubatistoriobat.com) liburu horien berri emateko, eta azaroa-ren 25etik aurrera gune hori bisitatu ahal izango da, eta liburuak irakurri edota maileguan eraman. Erabiltzaileek hautatutako liburuen artean KMKren funtsetan ez daudenak baldin badaude, KMKk haien eskuratzeko ahalegina egingo du.

Komikien arloari bultzada

Aurrera begira, bereziki hiru ildotan egin nahi ditu urrats berriak KMKk, Ikerne Badiola Kultura diputatuak azaldu duenez: «Lehena, Euskal Herriko komikigintzan erreferentzia gune bilakatzea, eta alor horretan dagoen hutsunea betetzea, Gasca Funtsak irekitako bideari esker; bilduma hori gizarteratzeko espazio bat sortuko da KMKko liburutegian. Bigarrenik, liburutegiaren funtzioak, zerbitzuak, baliabideak eta funtsak lantza migrazioaren, anitzasuna eta berdintasunaren perspektibatik. Eta hirugarrenik, Euskal Herriko liburutegi digitalaren bidean pausoak ematea».

Egitaraua

GAUR

- Goiz eta arratsaldez: musika emanaldiak, 11:30etik 13:30era eta 19:00etik 20:00etara. Ensemble Diatessaron eta Juan Sebastian Vazquez ariko dira, besteak beste.
- 17:30: Dantzaz konpainiaren Ni espioi ikuskizuna, KMKaren atarian; euria ari badu, erakusketa aretoan.

BIHAR

- 17:30: Kukai dantza konpainiaren Gelajauziak, KMKaren atarian; euria ari badu, erakusketa aretoan.
- 19:30: Antton Valverde eta Anjel Lertxundiren Hiru L-ak errezialdia —Lizardi, Lauaxeta eta Xabier Leteren poematan oinarritua—, areto nagusian.

AZAROAK 7

- 18:30: Kaleko ekintza KMK inguruan: Ados Teatroa konpainiaren Xuxurlariak.
- 19:30: Musika eta poesia errezialdia (euskaraz): Felipe Juaristik prestatutako antologia, Patxi Santamaria eta Napoka Iriarekin, areto nagusian.

AZAROAK 12

- 19:30: Musika eta poesia errezialdia (gaztelaniaz): Jon Obesok prestatutako antologia, Teresa Calo, Rafa Berrio eta Ainara LeGardonekin, areto nagusian.

AZAROAK 13

- 19:30: Itziar Okarizen performancea, Virginia Woolfen Gela bat norberarena-ren euskarazko itzulpenean oinarrituta; eta Asier Zabaletaren Joan zaretenei adio koreografia, erakusketa aretoan.